

'Har ezazu kontrola' programak smartphone, online joko eta sare sozialak

Educación digital. Toma el control

2020ko abenduaren 1 eta 10

Ordua: De 17:30 a 18:30h.

Presentziala eta online



Vital Fundazioaren 'Har ezazu kontrola' programak hezkuntza digitaleko saio berriak egingo ditu familientzat. Oraingoan, *smartphone*-n, online jokoen eta sare sozialen erabileran jarriko da arreta, gailu horiek erabiltzeko adina jaisten ari dela antzeman ondoren.

Informazioa

Gurasoek eta tutoreek ikastetxeetan gehien erabiltzen diren tresna digitalak erabiltzen ikasteko joan den urrian egin ziren jardunaldien arrakastaren ondoren, Vital Fundazioak beste urrats bat eman nahi du familien prestakuntzan. Oraingoan, eta 'Har ezazu kontrola' hezkuntza digitaleko programari esker, *smartphone*-n, online jokoen eta sare sozialen

erabileran jarriko da arreta. "Irailetik hona antzeman da gailu horiek eta eskaintzen dituzten aukera guztiak erabiltzeko adinak jaisten ari direla, eta are gehiago, Lehen Hezkuntzako haur batzuk gehiegi erabiltzen ari direla, eta zenbait kasutan kontrolik gabe.

Izena emateak

doako bi prestakuntza-saio gehiago programatu dira, familiei zuzenduak, *smartphone*-ak izateko, sare sozialak erabiltzeko eta online joko jakin batzuetan aritzeko gomendatutako adinei buruz kontzientziatzeko eta prestatzeko. Interesdunek abenduaren 1ean edo abenduaren 10ean jaso ahal izango dute prestakuntza hori, eta aurrez aurre edo etxetik bertatik, online, jarraitu ahal izango da. Aurrez aurreko saioa Vital Fundazioa Kulturunean egingo da (Bakea 5, Dendarabako 1. solairua). Kasu bietan, aurrez aurre nahiz online, saioa 17:30ean hasiko da eta ordubete inguruko iraupena izango du. Izena emateak doan egin ahal izango dira:

Fundación Vital Fundazioa

Kordoi Etxea, Aiztogile 24, Vitoria-Gasteiz

945 776 858

info@fundacionvital.eus